Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antonio Beloki Altuna

Eskoriatza, Gipuzkoa (1936-2011)



Aurkibidea

Biografia



Eskoriatzan jaio zen 1936an elizaren ondoko kale batean. Gurasoak ere bertakoak ziren, baina baserrikoak. 13 urterekin musika-bandan sartu zen eta klarinetea jotzen ikasi zuen. Zinerako zaletasuna ere izan du gaztetatik eta pelikulak botatzen ibiltzen zen.

Zintak

ESK-012

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-09-22
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Hirigintza arloan herrian izan diren aldaketak

- **Erref**: ESK-012/004
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:05:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Dorleta auzoa noiz hasi zen handitzen; Olaeta auzoa. Hirigintza arloan eman diren aldaketak.

Transkripzioa
- Oin, e, Dorleta [ezautzen] dauen auzua, hori hasiko zan gutxi gorabehera, 66an edo, ni soldaduskara etorri barri, hasi zien pixkat kooperatibak eiñaz, eta etxiak, ba, [ehun ta] 36 piso. Herrixendako izan zan gorakada haundixa, jente asko, beste... errentan bizi zianak eta ezkontzeko asmotan ta zerak eta... asko... hortantxe sartu zan.
- Orduan, zuk ze esango zenduke, hor, Dorleta ta Olaetan eta, kanbixua ze etorri zan...?
- Dorletaz hasi zan gehixen. Hori... hogeta... Klaro, hogeta... hamarren bat urte edo gehixago.
- 60 edo 70 inguruan?
- Bai, 60 inguruan, bai. Olaeta ez, Olaeta bastante barrixagua da. Lehengo estaziño parerutz, han danak ortuak eta soruak zien.
- Asko hazi da herrixa, ez?
- E?
- Asko hazi dala herrixa.
- Honbre, asko, asko, benetan.

2. Eskola kontuak

- **Erref**: ESK-012/007
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Ume-umetan, Merzedarietako mojekin ikasi zuen; hura izan zen bere lehenengo eskola. Ondoren maisuarekin ibili zen eskola publikoetan. Neska-mutilak eskolan banatuta ibiltzen ziren. Maisua nongoa zen; klaseak erdaraz ematen zituzten.

Transkripzioa
- Zu, umetan eskolara nora juan ziñan?
- Lehenengoko letrak, lehenengo gauzak, monjak. Klausurako konbentu bat egon zan hemen, honeixekin, horrek, Merzedarixak.
- Eta?
- Eta lehelengoko, ba oin, e... txikittan esaten dana, lehenengoko eskolia, hara. Eta gero, maistrua, nazionala.
- Eta klausurako monja hauekin, klasiak zeiñek emoten zittuan?
- Ba, monja batek!
- Klausurako monja batek?
- Bai. Eta izaten zan gauza kuriosua, gero mezia egoten zan han, domeketan, baiña mezara joaten zien monjak, arpegixa tapauta, klausurako [sariakin]. Baiña guk ezautzen giñuen; ikusi, mantilliorregaz, jarritta eruan arren, ba, lekturaren bat edo zeozer ein ezkero be, ba, haxe, fulana da, eta...
- Eta zein zan zeuen maistria?
- Ba, ez naiz asko akordatzen, Caridad ete zan, Sor Caridad edo... bat ete zan. Oso gogorra, e?
- A bai?
- Bai. Neuk oin behintzet, hoixe... Klaro, 5-6 urteaz, ba, bueno... baiña bastante gogorra zan ha.
- Eta gero zuzenian handik, zenbat urtekin edo ya nazionaletara?
- Ba, nik uste dot...
- Justo hor gerriak harrapauko zetsuan, gaiñera, ez?
- Ez, ez, gerria, gerra ostian...
- A, bueno, ez, klaro, zu 36kua zara...
- Ni eskolara —pentsetan jat— lau urtegaz egon giñala, 4-5, monjetara, ba bueno, gerra ostian, segiduan.
- Gero nazionaletara esaten dozu...?
- Beste urte pare bat edo hiru bat ein nittuen.
- Horrek nun zeren, eskola hori nun zeuan?
- Plazan.
- Plazan bertan?
- Plazan, oin etxe barrixak eindda dauzen tokixan.
- Zelakua zan? Haundixa edo...?
- Ke ba!
- ... edifizio...?
- Ke ba, ez, edifizio zaharra, e? Zaharra. Hantxe, etxe barrixok eindda dauz baiña... entregatzeko zeretan baiña, haik etxiek, bueno, nik botatzen ikusi nittuanian, grabatzen egon [nitzan] ta...
- Orduan eskolia bertan emoten zenduan, plazan? Baiña ze izaten zan, neskak eta mutillak...?
- Aparte!
- Aparte baiña edifizio bardiñian?
- Bai, baiña entradak, osea bi, osea baikotzak beria. Plazatik gora eskillera batzuk neskenak eta bestiak mutillenak.
- Zeozetarako juntaten ziñazien, jolas-orduan edo...?
- Ke ba! Ondiok...

- Eta maixuak edo... Zeuek maixua eukiko zenduen, ez?
- Bai.
- Irakaslia, gizonezkua. Knpotik etorrittakua zan edo bertakua?
- Bai, izetez, pentsaten jat, Santandertikua, Santanderkua. Klaro, euskeraz ez batek eta ez bestiak, e!

3. Hezkuntza diktadura garaian

- **Erref**: ESK-012/011
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:15:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Eskola kontuak Frankismo garaian; Cara al Sol abestu behar izaten zuten garai batean.

Transkripzioa
- Zuk gogoratzen dozu, hori, eskolan, Francon erretraturik edo?
- Bai, bai, Francon erretratua eta... batenbaten... edo epokan baten zerien, 'Cara al Sol' be kantauta nao ni, e!
- Eskolara sartutakuan?
- Eskolan. Goizian frailliekin errezau ein biharrian, maixuekin...

4. Ikasketak non burutu zituen

- **Erref**: ESK-012/012
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:15:25. **Bukatu**: 00:16:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Herriko eskolan amaitu eta San Viatorreko fraideetan hasi zen ikasten.

Transkripzioa
- Herriko eskolan, zenbat urtekin edo?
- Herriko eskolan, 8 bat ... 6ttik 8ra, 6-9 ... holakon bat.
- Eta behin hori amaittutakuan, zein izaten zan hurrengo pausua edo?
- Ez, zera, gero... zerakin, frailiekin.
- Frailliekin.
- San Viatorrekuak. Urte asko maixu bateaz.
- Zeiñekin?
- Hermano Luis. Hau be, ibilitta egongo zara.
- Eta zelakua zan Hermano Luis?
- Bueno, euskalduna, hak bai euskeraz itten oskun. Bai. Eta bueno, hemengo kantuak eta, bueno, oso boz onekua, eta, bueno, gero epokia be izen zan, egon zien, ba, orduan apaizak zela gehixago zaozen, hor lehen esan douna, Don Antonio, ba, zinia zertu zabena eta, eta horreik musikuak zien, musikuak eta organistak eta, bueno, musika... musika... asko gustatzen jakonak be bai, eta asko zekixenak.

5. Eskoriatzako musika banda

- **Erref**: ESK-012/024
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:34:45. **Bukatu**: 00:35:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Musika Bandaren inguruko azalpenak; igandetan kontzertua ematen zuten plazan eta kalejirak ere egiten zituzten.

Transkripzioa
- Bueno, bueltauta musika kontuetara eta, musika bandia esan dozu kanpora larrei ez ziñaziela urtetzen, baiña herrixan bertan...?
- Bai, domekero.
- Domekero joten zenduen?
- Domekero, bai.
- Ta pasakalliak eta itten zenduzen?
- Baitta, baitta. Jai haundixak zianian pasakallia. Eta iñoiz, ba, bueno, pixkat, e... ya osatu giñanian grupotxua ta zerien, ba, konziertuak be bai, plazan.

6. Zinea Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-012/029
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:50:10. **Bukatu**: 00:52:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinea Eskoriatzan. Elizak izan zuen hasiera batean zinearen ardura herrian eta parrokoak asko zaintzen zuen eskaintzen ziren pelikulen egokitasuna.

Transkripzioa
- Bueno, klaro, zu gerturatu ziñanerako ya pixkat kontu horretara, ordurako ya hasitta egongo zan, ezta?
- E?
- Zinia emoten zeben eurak, ez?
- Bai.
- Zu 18 urtekin pixkat hasi ziñan interesatzen baiña ya emoten zebizen...
- Ba, 5-6 bat urte edo.
- Eta ze pelikula izaten zian?
- Bueno, normalak, baiña...
- “Indios y vaqueros” edo...?
- Bai, bai, danera, danera, baiña beti... zeakin... kontrola... parrokuak. Zeatik hak, ha lokala zan parrokixa... osea, monjak alde ein euenien, monjen... osea, parrokixan kargua edo, behintzat, uezaba, edo, behintzet parrokixakua zan. Ta gero aiuntamentuakin, alkatiakin ta proiektua ein euen eta, bueno, zeozer, hasieria emun zakon.
- Eta, orduan, eurak zaintzen zeben, hori, parrokuak eta, ze, ze pelikula emoten zian eta?
- Bai, eurak zertuta. Euen hemen, dana, zela parrokixa danetan zeuen kasik zinen bat, ba, edo sakristixan dala edo beste lokalen baten parrokixakua, orduen, zeuen ofiziña bat Tolosan, eztakit nik ze, ze, ze, ze esan gura euen, baiña Fides edo zan ha. Osea, gero pixkat zinian administraziño partia be [erun auen], baiña haik kontratuak itten zittuen, ba, ze pelikula, ze lote. Ba, marka batetik, ba... Eta, klaro, hamarretik bi edo hiru izaten zien oso onak edo famosuak, baiña bestiek, ba... lotia hartu bihar zan ta, ba...
- Hala eta guztiz be, orduan, gustora juango ziñazien, ez?
- E?
- Hala eta guztiz, nahiz eta pelikulia txarra izan edo, gustora ikusiko zan, ez? Behintzat zeoze diferentia, ez?
- Bueno, beste... beste... bestela autubusa edo trena hartu geikien, hartu zeikien ta Mondrauera, bueno Mondrauen bai eta Aretxabaletan be bai, baeuen zinia, baiña, ba, kanpora fan bihar.

7. Zinearen lehenengo urratsak

- **Erref**: ESK-012/030
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:52:55. **Bukatu**: 00:56:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinearen lehenengo urratsak zeintzuk izan ziren kontatzen du. Pelikulak nola ematen ziren azaltzen du.

Transkripzioa
- Eta, hori, esaten dozu ziniak bazerela beste parrokixa... bueno, parrokixa gehixenetan edo. Baiña hemen bertan, Eskoriatzan, zenbat halako makiña,

osea, zinia zenbat tokittan egongo zan, hor bakarrik?
- Bai, bai, bai.
- Eta zuk badakizu zelan jirau zeben, ba, aparatua eta horrek gauza guztiorrek?
- Ni hasi [nienien], ni hasi [nien], aparato bat bakarrik zeuen. Gero ya pixkat jentia... jentia edo gehittu edo gehixau etorri zala zerien, ba, ya bigarren aparatuau, ba... zertu barik, korte barik, batetik bestera pasau, baiña... honeik, e... kasik, honeik asuntuok, pixkat tokau jaten “en primera linea”!
- Eta, orduan, lehelengo aparatu horretan, kortiak zegaittik? Ze zian, “ocho milimetros”? Ze, ze...?
- Ez, ez, ez, “treinta y dos”, normala, normala.
- Eta ze korte egoten zian?
- [...], ba, hiru ordu larenetik hiru ordu larenera, por ejenplo, tamaiñua, bobinian tamaiñua, hiru ordu larenetik aurrera ez zan kabiduten ya. Zinttia goraiño. Eta, klaro, hara allegatzen zanian, ba, bueno, deskantsua ein ezkero, orduan deskantsua eitten zan...
- Bobinia aldatu...
- Bai, ta ya esta. Eta, ba, bueno, normalian izeten zien hiru, hiru rollo, hiru zatittan, eta, klaro, proiektore bat zeuenien bakarrik, ba, derrigorrian, kendu in bihar, osea, aldatu ein bihar.
- Bi deskanso.
- [...] guretzako izeten zan prueba bat, aber zeiñek azkarrau in. Gero prisakin igual zinttia gaizki sartu ta barriro argixa ixotu bihar, ta “fssss”, txistua. Buf... ohittuta, ohittuta ya, [zenbat] txistu...
- Eta gero, esan dozu, makiña barrixa ekarri zanian, orduan ya korterik ez?
- Ez, zeatik lehelengokua, lehelengo rollua baten eta gero bestian, eta bata akabatzen zanian, ba, hirugarrena han barriro...
- Anekdotak be eukiko dozuz, ez?
- Buu... zinekuak? Danak, anekdota danak daukat.
- Pelikulia apurtu edo erdixan...?
- Ta argixak itxungi, zeatik orduan bonbillak ez zien... zien hortaiko... horreik, soldadora elektrika modukoko... zer batzuk, bonbillia, ba, argixa itten zabena oso foko fuertia, baiña bonbillia izan biherrien kristaleko [...], zerak, polo bixak ta, orduen, ikutzerakuen sua, sua, bueno, argixa.
- Bai.
- Eta atzien egoten zan kristal bat, eta hak urtetzen euen makiñan aurrera. Eta ha euki biher zan beti, ba, puntutxo baten, osea, aurreratxuao edo atzeratxuao. Ta separauta [zerenian], osea, gastau, gastau itten zan, ta apurtxo bat [apartatzen] zanian, itxungi itten zan dana. Eta bueno, segiduen enteretan ziñen, txistua ta...

8. Zinearen inguruko zenbait azalpen

- **Erref**: ESK-012/031
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:56:55. **Bukatu**: 00:58:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinea astean hiru egunetan egoten zen; sarrerak zenbat balio zuen.

Transkripzioa

- Pelikulak noiz izaten zian, zinia ze egunetan egoten zan edo?
- Zapatua, domeka, eta eguenak be bai.
- Eta zenbat kobratzen zan?
- Puf!
- Hasierako urtietan, zer izango zan?
- Ba bastante [urterakuak ni]... osea... hasi ta 10 bat urte edo, nota, hola, zea bat, nota bat daukat neure, neure rekuerdua...
- [...].
- Ez, ez, neuk eiñikua, zera, likidaziño bat eiñikua, ta 9 pezeta, 8, entradia.
- Eta, orduan, ba, umiak edo gaztiak edo tranparik-eta egitten zeben, ba, sarreria ez pagatzeko edo halako...?
- Ez. Ez, zan bastante... Bueno, butaketan ta, bueno, butaketan... lehelengo sillak zien. Apurtxo bat...
- Egurrezko...?
- Bai. Apurtxo bat bat dirua [eukitzen gebenien], bueno! Zerien, hemen Rioja, Rioja... Ezkarai edo, zeuen fabrika bat hola itten zittuena, eta handik etorri jakun bat eta, bueno, montaje politta in zoskun. Baiña, bueno, hillebetegarrengo ya...
- Apurtuta?
- Buf, desastre.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com